

PATXI ONDARRA ERDOZIA: BIZITZA ETA LANAK

(1925-2005)

Sakanako Bakaiku herrian jaio zen 1925eko maiatzaren 19an. Feliziano Ondarra eta Maria Erdozia, bere gurasoak ere bakaikuarrak ziren. Izan zituzten sei seme-alaben artean Patxi zen zaharrena.

1937an, 12 urte zituelarik eta Espainiako Gerra Zibila puri-purian zegoela, sartu zen Kaputxinoek Altsasun duten seminarioan, eta, garai hartako bere ikaskide batek jakinarazi digunez, karlisten umeek eraman ohi zuten *pelayo* trajez jantzia agertu omen zen.

Apaiz ikasketak burutu arte ikas ibilbide hau egin zuen: Altsasun Humanitate ikasketako bost urteak, Hondarribian Filosofiako bi lehenbizikoak, ondoren Zangozan nobiziadu urtea, handik Lizarrara joan zen Filosofiako hirugarrena eta Teologiako lehendabizikoa egitera, eta azkenik Iruñean amaitu zituen Teologiako hiru hurrengoak. 1949ko abenduan apaiztu eta meza berria Altsasuko komentuan eman zuen Eguberri aurretik.

Hasiera-hasieratik nabaritu omen zitzaion historia eta hizkuntzak ikasteko joera berezia. Euskaraz gain latina, greziera, frantsesa eta alemana ikasi zituen eta bere kabuz eskatzen zuten baino maila altuagoa lortzen saiatzen omen zen eta, Teologia egiten aritu zen urteetan, hebreera ere nahiko ongi ikasi omen zuen. Hala aitortzen du berak, meza eman eta hurrengo urtean Kaputxinoen Probintzialak igorritako gutun baten erantzunean:

«en Pamplona estudié mucho hebreo y leía casi sin diccionario los libros históricos. Leí el Pentateuco, Josué, Jueces, Samuel, Reyes, etc. Aspiraba a traducir con el tiempo la Biblia de las lenguas originales al vascuence... En cuanto al griego, he leído casi todo el Nuevo Testamento. El alemán, una de las lenguas más necesarias en punto a Escritura, me parece que lo entiendo con bastante facilidad. Vascuence también he estudiado mucho, aparte de ser mi lengua materna. Mi centro está aquí.»

Zergatik adierazten zion bere lekua hemen zegoela? Bada, Probintzialak Txilera joateko proposamena egin ziolako eta Patxik bere burua zertarako ikusten zuen gai eta zertarako ez jakinarazteaz gain, guztiaren gaineratik hemen geratu nahi zuelako. Badaezpada ere, Probintzialak zalantza izpirik izan ez zezan edo, honela laburbildu zuen erantzun gutun hori:

«en resumen, yo no me siento ni con aptitudes, ni con entusiasmo para los ministerios a los que me destinan y, en consecuencia, desearía no contasen con un servidor.»

Hala ere, Probintzialak tinko eutsi zion bere proposamenari eta Patxik hurrengo gutun batean honela erantzun zion:

«Me dice que acepte sin titubeos mi destino. Digo, pues, que me resigno, nada más, a ir a Chile. No siento ninguna ilusión por ir allá. Si voy, será únicamente porque me mandan (1).»

Hamahiru urtez aritu zen Santiago hiriburutik 25 kilometrora dagoen Paine izeneko hirian kaputxinoek zeukatzen seminario txikian irakasle, hizkuntza irakasle batik bat; baina, aldi berean, batere bere gustuko ez ziren zenbait ardura ere hartu behar izan zituen ikastetxe hartan, bertzeak bertze, ikasketaburu izan baitzen zazpi urtez eta zuzendariorde eta diziplina prefektu bertze hiru urtez. Hala ere, Txilen emandako urte haiek aprobetxatu zituen ingelesa ikasteko, eta maila ona lortu zuen nonbait, Michigan Unibertsitateko Proficiency in English titulua eskuratu baitzuen 1961ean.

1964an, hamahiru urte jarraituak han egin ondoren, merezitako oporrak hartu eta hona etortzeko aprobetxatu zuen. Hasiera batean oporraldi garai horretan bere familia bisitatzea etorri bazen ere, behin betiko hemen gelditu zen.

Hurrengo hiru urteetan Tuteran eta Zangozan aritu zen irakasle, eta bertze bi urtez Donostian. Azken hiri honetan bere ama hizkuntza sakontzen hasteko aukera ona izanagatik, urte bat geroago, 1968an –apaiztu zenetik 19 urte pasatu ondoren–, Lekarozera igorri zutenean, hasi zitzaion Patxi Ondarrari bere betiko asmo eta ametsak asezteko bidea irekitzen. Orduan bai erran ahal izan zuen «mi centro está aquí». Ematen duenez, oraingo honetan aurkitu zuen leku eta gunea aproposa bera gai sentitzen zen lanetan murgiltzeko, ikasten segitzeko eta ikerketan trebatzen hasteko. Lekarozko komentua, euskal kulturarekin lotura handikoa izateaz gain, zenbait euskaltzainen bizilekua ere izan baitzen, bertzeak bertze, Damaso Intzakoa eta Polikarpo Iraizozkoa euskaltzain osoena eta Arrigarai, Eusebio Etxalarkoa, Aurelio Etxarri Aranazkoa eta Jurgi Errezukoa urgazleena. 19 urte lehenago Biblia euskaratzeko asmoak urrutixko gelditu zitzaizkion nonbait eta Lekarozko ikastetxean, irakasle aritzearekin batera, alor berriak jorratzen hasi zen. Euskararen ikerketarako bere burua hobeki jantzi nahian, UNEDn matrikulatu eta lau urteren buruan, 1980an, 55 urte zituela, filologian lizentziatura lortu zuen.

Ikasketa hauek amaitzeaz zituela izendatu zuten euskaltzain urgazle, 1979ko abenduaren 20an, eta zazpi hilabete geroago, 1980ko uztailearen 31n, euskaltzain oso, Jose Mari Satrustegi, Jean Haritschelhar eta Henrike Knörr euskaltzainek proposatuta, bertze kaputxino batek, Aita Polikarpo Iraizozkoak, hutsik utzitako aulkia betetzeko. Sarrera ekitaldia Altsasuko kaputxinoen komentuan egin zen, 1981eko martxoaren 22an, eta hitzaldian «Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena» izenburuko gaia garatu zuen. Erantzule J. M. Satrustegi izan zen.

25 urte egin zituen Patxik Lekarozen, baina fraideek ikastetxe hura Nafarroako Gobernuari saldu ziotenetik, bakaikuarrak Iruñera joan nahi izan zuen eta 1993az geroztik bere azkeneko 12 urteak, Altsasun egindako egonaldi batzuk salbu, Iruñeko San Pedro auzoko kaputxinoen komentuan pasatu zituen. Urte hauetan buru-belarri aritu zen ikerketa lanetan eta, bere bibliografian ikusten ahal den bezala, euskarazko testuak argitaratzea izan zuen ia-ia helburu bakarra, idatzi zituen liburu gehienak eta artikulua franko garai honetakoak baitira.

(1) Informazio hau eta bertze zenbait datu eskura jarri dizkigun *Tarsicio de Azcona* izeneko kaputxinoari eskerrak eman nahi dizkiogu.

Patxi Ondarraren lanak

Aipatu dugu Lekarozen hasi zela alor berriak lantzen, eta hilberri txosten honekin batera argitara eman dugun haren bibliografian ikusten ahalko den bezala, nahiz eta bertze zenbait gai ere landu, bi izan ziren gehien jorratu zituenak: Arkeologia (Megalitika bereziki) eta Euskara.

1. *Megalitika*

Patxi, alde batetik, pertsona isila, langilea eta gauza guztiei zuhurki erreparatzen ziena zen; eta bertzetik, beti agertu izan zuen naturarekiko maitasuna eta mendizaletasuna. Bere jai eta opor egunetako atsedean eta gozamenik handiena mendian ibilbide luzeak egitea izaten zen, zer ikusi eta ikasi, zer berri aurkitu bere fitxategia osatzen joateko. Mendizale ibiltari nekaezin honek, bai Baztandik hasi eta Bertizarana, Malerreka, Bortzerriak, Artesiaga, Kintoa, Lantz, Belate, Ultzama, Anue... eremuetako bidexka eta xoko guztiak, bai bere sorterri inguruko Aralar, Urbasa, Altzania, Lizarrusti... mendietakoak ere, pausoz pauso ezagutzen zituen eta trikuharri, oroitarri, mugarri, monolito, cromlech, tumulu... ugari aurkitu zituen. Nafarroan urte haietan megalitikan aditu zirenekin harremanak izan zituen, bertzeak bertze, Tomas López Sellés jaunarekin eta, hain zuzen ere, 1977an López Sellés zendu zenean, Nafarroako Foru Diputazioak Príncipe de Viana Erakundearen Indusketa eta Arkeologia batzordekide berria Patxi Ondarra izendatu zuen.



Alor honetan egindako aurkikuntzen lekuko dira aldizkari espezializatueta argitara eman zituen zenbait artikulu, bost *Príncipe de Vianan* eta hiruna *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, *Trabajos de Arqueología de Navarra* eta *KOBIE*n. Guztien gainetik aipagarria, izan duen oihartzunagatik, 1973an Baztango Soalar men-

dian aurkitu eta izen hori daraman menhir neolitikoa, 4 metro eta 30 zentimetroko altuera, 3'5 tona, eta gizon eta emakumearen grabatuak dituena. Orain Elizondoko J. Oteitza Etnografia Museoaan dago ikusgai.

2. *Euskara*

Euskaltzain izendatu berri hartan egin zitzaion elkarrizketa batean zioen euskal gauzetarako izugarritzko grina izan zuela beti eta, euskalduna eta nafarra zen aldetik, bere xede nagusia Nafarroako euskalduntasunaren erakusketa egitea zela, alegia, Nafarroan non, noiz eta nola hitz egiten zen ezagutzera ematea ondoren hartu beharreko erabakiak hartzeko.

Argitara eman dituen lanak hiru atal nagusitan sailkatzen ahal dira: a) Joakin Lizarraga, b) Aita Polikarpo Iraizozkoa eta c) euskal testuak.

- a) Joakin Lizarraga Elkanokoa. Lekarozko hasierako urteetan Megalitikan murgildu bazen ere, ikusten ahal da berehala ekin zela euskararen inguruko gaietara eta hauen artean lehendabizikoak *Fontes* aldizkarian argitara emandako «Producción literaria de Joaquín Lizarraga» (1972), «La Escuela de gramática de Joaquín Lizarraga, en Elcano» (1978) eta «Joaquín Lizarraga en el Diccionario de Azkue» (1980) izan ziren. Berehala etorri ziren hurrenez hurren lan mar-dulagoak, Elkanokoari buruz idatzi zituen liburuak, *Ongui iltzen laguntzeko itzgiaic* eta *Urteko igande guzietarako prediku laburrak*, Euskaltzaindiaren Euskararen Lekukoak bildumaren 10. eta 16. aleak, eta *Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak*, Juan Apechearekin batera prestatu eta Nafarroako Gobernuak argitaratua. Bazuen oraindik material gehiago eta bere azken egunak arte aritu zen prestatzen Elkanokoaz laugarren liburua izatea espero duguna, *De Decalogo* eta *Aitaguean azalpena* izenburukoak.
- b) Aita Polikarpo. Euskaltzaindiko aulkian ordezkatu zuen Iraizozkoaz ere lan ugari utzi dizkigu. *Euskera* aldizkarian lau artikulua, horietako bat sarrera hitzaldian garatu zuen gaia eta bertze bat Iraizotz herrian 1997an Euskaltzaindiak ospatu zuen Aita Polikarporen mendeurrenean azaldu zuen txostena «Aita Polikarpo Iraizozkoaren bizitza eta obrak» izenekoa. Mendeurren honen ondorioz, Euskaltzaindiak proposatuta, Nafarroako Gobernuak hiru liburutan eman zituen argitara Iraizozkoaren lanak, *Hitz neurtuzko lanak* batean eta *Hitz lauuko lanak* bertze bitan, hirurak Patxi Ondarrak prestatuak.
- c) Euskal testuak. Aipatutako bi egile horien liburuez gain, *Karmelen* bertze bat ere idatzi zuen, Arakistain eta Zuzaeta karmeldarren idazlanak biltzen dituena. Baina gehiago dira artikulua modura argitara eman zituen testuak, Nafarroakoak eta XVIII-XIX. mendekoak batik bat, *ASJU*, *Euskera*, *Fontes* eta bertze aldizkari batzuetan, baita euskaltzainei egindako zenbait omenaldi liburutan ere ageri direnak. Kontuan izanik testu horien lekukotasun geografikoak, hala nola, Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Bortzerriak, Bidasoa Beherea, Eguesibar, Txulapain, Itzarbeibar, Oltza, Olluibar, Iguzkitza, Goñerri, etab. direla, oso material interesgarria da Nafarroako euskara ikertu eta ezagutzeko. Iñaki Caminok orain dela urte pare bat argitaratutako *Hego-nafarrera* liburuan dio On-

darra euskaltzainaren ikerketak baliabide paregabea izan direla Goñerriko euskaraz fruitu gehiago lortu ahal izateko.

Euskaltzaindian izandako ardura

Hiru batzordetan aritu zen batik bat:

1. Dialektologia. Batzorde honetan sarrera hitzaldia egin zuen urte beretik hasi eta hamabi urtez aritu zen; horietako hamarretan, 1981-1987 eta 1989-1993 bitartean, batzordeburu izan zen, eta bertze bitan, 1987-1989, buruorde. Batzorde arduraz gain *Maileguzko hitz berrien* azpibatzerdean eta *Lexiko Irizpideen Finkatze lanetan* parte hartze zuzena izan zuen, baita Dialektologiarako Nafarroan egin ziren inkestetan ere. Hiztegia biltzeko zuen zaletasunaz jabetzeko aski da bere lanak ikustea. Adierazgarria da 1965ean argitara eman zuen bere lehendabiziko lana *Voces vascas de Bakaicoa* izan zela eta 40 urteren buruan inprimategira eraman zuen azkenekoa lan hura osatua izan zela, oraingoan euskaraz emana, *Bakaikuko euskal hitzak, esaerak etab.* izenekoak. Lan hau da, hain zuzen, *Fontes* aldizkariaren 100. alean plazaratu berri dena eta Patxi Salaberrik, aldizkari horren zuzendari eta bakaikuarra Euskaltzaindian ordezkatu duenak, gaurko osokoen bilkuran eskura eman diguna.
2. Gramatika. Batzorde honetako kide bertze hamabi urtez izan da, 1993an Dialektologiakoa utzi zuenetik bere azken egunak arte. Batzordeko idazkariak jakinarazi digunez, Patxi Ondarrak eginbehar guztiak zintzoki betetzeaz gain, oso gustuko zuen *EGLU*ko materialetan gramatika-fenomeno bitxi samarrak aztertzen zirenean bereziki, berak prestatu eta argitara eman zituen Nafarroako hainbertze testutatik jaso zituen lekukotasunak proposatzea.
3. Onomastika. Batzorde hau 1983an eratu baino lehenago osatu zen behin-behineko *Herri Izendegia* lantaldeko kide izan zen. 2001az geroztik, berak hala eskatuta, kide-aholkulari genuen. Atal honetan hurbilagoetik ezagutu nuen, Euskaltzaindiko bileretarako joan-etorrietan gai honen inguruan aritzen baikinaren solasean erregulariki. Gustukoa zuen. Lekarozen egon zenean datu asko bildu zituen; ongi miatu zuen Baztango udal artxiboan. Lan horren lekuko dugu, erraterako, 1984an argitara eman zuen «Apeo de Baztan», Baztango XVIII. mendeko etxe izenen dokumentua; eta artxibo hartan egin zuen lanaren lekuko izan nintzen ni neu orain dela hogeitatu bat urte, tesia egiten ari nintzela jakin zuenean, Malerreka inguruko datuak bildurik zituen lauzpabost karpeta eman zizkidanean, eta berriro joan den uztailan, bere azken egunetan, Paskual Rekalderi eta bioi iritsarazi zigunean artxibo beretik hartuak zituen gainerako materialak, Baztango herriei dagozkienak batik bat.

Erran beharrik ez dago zein zehatza zen, bai agiritatik hartzen zituen datuak biltzean, bai bere mendi ibilaldietan entzuten zituen forma biziak jasotzean. Bere ustez oker jarriak ziren zenbait izenen salaketa egin zuen; erraterako, arkeologoen *Abauntz* izenarekin bataiatu zuten Arraizko kobazuloa *Lamiñuzulo* zela zioen; Aralar mendian Atlantiko eta Mediterraneoarako urak banantzen diren puntuan dagoen trikuharria, J. M. Barandiaranek, Ataungo ahoskeraren arabera, *Argonitz* izendatu zuena *Arginarotz* dela; eta Barandiaranek *Mailarreta* izenaz bataiatutako Arraizko trikuharria, Baztango dokumentazioaren arabera *Mairuilarrieta* dela.

Euskaltzain nafarra

Nafarroan euskararen arrastoak aurkitzen aritzeak liluritzen zuen Patxi eta, gogo aipatu dugun bezala, euskalduna eta nafarra zen aldetik, euskaltzain izendatzean bere buruari jarri zion helburu nagusia Nafarroako euskalduntasun historikoa erakustea zen, non eta noiz hitz egiten zen eta nolakoa zen euskara hori, horren ondorioz euskara baturako behar ziren erabakiak hartzeko.

Aipatu ere egin dugu, azkeneko bospasei urteetan Euskaltzaindiko bileretarako joan-etorrietan ordu franko egin genituela elkarrekin eta egiaztatzen ahal dugu bere kezka nagusiak euskararen egungo egoera eta etorkizuna zirela, baina Nafarroako ikuspuntutik. Bertez modu batera errateko, bere kezkek euskara batua eta euskara Nafarroan ziren. Pertsona isila, hitz gutikoa baina zehatza, behar baino gehiago hitz bat ere egiten ez zuena, eta hitz bat bertzea baino altuago ere ahoskatzen ez zuena. Hala ere, ohi ez bezala, erabat asaldatua eta haserre bizian mintzatzen ikusi izan nuen pare bat aldiz. Behin, euskararen munduaren barrenetik batuari buruzko kritika gogorrek plazaratu ziren batean, hizkuntza berria, asmatua, artifiziala, Martekoa, etab. zela zioten zenbait adierazpen eta iritzi kritiko zirela eta; bertez batean, Nafarroan azkeneko 30-40 urte hauetan loratzen ari den hizkuntza itotzeko hartu ziren neurri gogorrek ikusita eta, bereziki, bertako hizkuntza propioari egunkarietako iritzi artikuluek erakusten zioten errespeturik ezak minduta.

Patxi Ondarra, izateko moduagatik, ez zen bere burua inola ere agerian jartzen zutenetakoa; hala ere, euskararekiko zuen kontzientzia eta konpromiso pertsonalak behin edo bertez bulkatu zuen nafar gizartearen aurrean aurpegia ateratzera. *Lingua navarrorum* inoiz ez zela nafarren hizkuntza izan, nafar batzuen baizik, eta *Nafarroa*, *Euskal Herria* eta *Vasconia* izenak nazionalisten asmakizun berriak bertzerik ez zirela zioten artikuluek egileen aurrean agertu zuen bere iritzia. Datu zehatz eta ongi dokumentatuak emateaz gain, bazekien ironia puntu bat ere erabiltzen bere erantzunetan. Adibidez, horietako batean, *Lingua navarrorum* artikulua egileari «un incansable soldado de la pluma» deitzen dio, eta *Nafarroa*, *Vasconia* eta *Euskal Herria* izenez ari den batean, hainbat aipu historiko eman ondoren, erraten du bere azkeneko kontsulta bibliografikoa Nafarroako Kutxak 1990ean 11 liburukitan argitara emandako *Gran Enciclopedia navarra* obra izan zela, eta, aurkitutakoa ikusi ondoren, iruzkin honekin ematen dio amaiera artikuluari:

«*Vasconia* es un banco y *Euskal Herria* no tiene entrada: no ha existido nunca.»

Patxi Ondarra, eroriko batek eragindako zaurien ondorioz, 2005eko uztailaren 30ean hil zen, euskaltzain oso zeneko 25 urte bete behar zituen bezperan, hain zuzen. Isil-isilik, bizi izan zen bezalaxe, eta, itxuraz, ustekabean joan zitzaigun. Berarentzat, ordea, azken ordu hori ez zen ustekabekoa eta bat-batekoa izan. Zendu zenean konturatu nintzen hilabete batzuk lehenagotik erabat jabetua zegoela bere amaieraren hurbiltasunaz, adierazgarriak izan baitziren bere bizitzaren hondarreko hilabeteetako bizipahiru gertakari. Azkenaldian, Euskaltzaindiaren osoko bilkuretara joaten ez zenean, erregulariki igortzen zidan bere ahala posta elektronikoaz, baina joan den ekainean, komentuko eritegira eraman ondotik, Gema Iruñeko ordezkarietako bulegariari deitu zion komentura joateko eskatuz. Niri zuzendutako eskutitz azalaren barruko paperak zera zioen «Andres Iñigori beti nire ahala. Sinatua P. Ondarra». Uztailaren gisa bereko deia jaso zuen Gemak. Azken honetan lehen aipatu dudana Baztango artxiboan jasotako materialaren zenbait karpeta emateko. Oraindik adierazgarriagoa da kaputxinoek bere ge-

lan aurkitu zuten paper bat, antza denez, eritegira joan aurretik, martxoan edo apirilean, idatzia utzi zuena. Bertan, zehatz-mehatz ematen du aditzera zer lan zituen eginan edo amaitzeko puntuan, bere gelako zein karpeta eta apaletan zegoen horietako bakoitza eta zein pasahitz edo klaberi emanda aurkitzen ahal ziren bere ordenagailuan (2). Argi adierazi nahi izan zuen nonbait, depresioak jota komentuko eritegian sartu zenean, ez zuela bere burua gai ikusten ez Euskaltzaindiko bilkuretara etortzeko, ez lanean segitzeko. Nolabait errateko, testamentu baten modura utzi zuen idatzirik esku artean zituen lan eta arduren berri.

Lehenago aipatu dugu euskaltzain izendatu berri hartan, euskalduna eta nafarra zen aldetik, zertan saiatu nahi zuen argi eta garbi adierazi zuela. 25 urteen buruan, bere bizitzaren helmugan, Patxi Ondarra langile nekaezinak uzta oparora utzi dio euskarari eta Nafarroari. Uzta baliagarria Euskaltzaindiaren lanetarako eta kultura ekarpen interesgarria Nafarroarentzat, bai historiaurreko megalitika aurkikuntzengatik, bai paper zahar ez-kutatuetatik aterata ezagutzera eman dituen bertako hizkuntzaren ezaugarriengatik. Espero dezagun merezimendu horiek balioztatuak ikustea eta espero dezagun, halaber, Nafarroako *Entziklopedia* hori berrargitaratzen denean, *Vasconia* eta *Euskal Herria* izenen sarrerek agertzea, eta hauek agertuko ez balira ere, *Ondarra Erdozia*, *Patxi* sarrera berria ikustea, Nafarroaren alde egin duen lanaren errekonozimenduaren seinale.

BIBLIOGRAFIA

Laburdurak

- ASJU = *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*.
 BIA/BEB = *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria / Boletín de Estudios del Bidasoa*.
 BRSVAP = *Boletín de la Real Sociedad Vasca de Amigos del País*.
 CEEN = *Cuadernos de Etimología y Etnografía de Navarra*.
 FLV = *Fontes Linguae Vasconum, studia et documenta*.
 PV = *Príncipe de Viana*.
 TAN = *Trabajos de Arqueología de Navarra*.

1. Argitaratutako liburuak

1.1. Euskararen Lekukoak, Euskaltzaindiaren bilduma

- *Ongui iltzen laguntzeco itzgiaic. Joakin Lizarraga*. Edizio kritikoa, Frantzisko Ondarrak paratua, Euskararen Lekukoak 10, Euskaltzaindia, Bilbo 1984.

(2) Honako hauek aipatzen ditu:

- *De Decalogo*, Joakin Lizarraga Elkanokoa.
- *Euskal Lan Argitaragabeak*, Fr. Joan Endara Berakoa.
- «Santiago Arazurikoa edo Kintin Eraso, predikaria».
- «Hemezortzigarren mendeko testuak gipuzkeraz».
- «Fr. Joan Endara Berakoa KAI-n».

- *Urteko igande guzietarako prediku laburrak. Joakin Lizarraga, Elkanokoa*. Edizio kritikoa. Frantzisko Ondarrak paratua, Euskararen Lekukoak 16, Euskaltzaindia, Bilbao 1990.

1.2. *Karmel*

- *Fr. Migel San Frantziskorena (Zuzaeta), Fr. Jose Jesus-Mariarena (Arakistain): XVIII-XIX. mendeetako Karmeldarrak. Idazlanak*. Frantzisko Ondarra & Antonio Unzueta, Karmel Sorta 10, Markina-Xemein 1997.

1.3. *Nafarroako Gobernua*

- *Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak. Joakin Lizarraga*. Edizio kritikoa. J. Apechecheak eta F. Ondarrak prestatua, Nafarroako Gobernua, 1994.
- *Hitz Neurtuzko Lanak. Aita Polikarpo Iraizozkoa*, Nafarroako Gobernua, 1997.
- *Hitz Lauzko Lanak I (1927-1949). Aita Polikarpo Iraizozkoa*, Nafarroako Gobernua, 1999.
- *Hitz Lauzko Lanak II (928-1949). Aita Polikarpo Iraizozkoa*, Nafarroako Gobernua, 2000.

2. **Omenaldi liburuetak**

- «Hemezortzigarren eta hemeretzigarren mendeetako euskal gutun ez-ezagunak», Iker-2, *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Euskaltzaindia, 1983, 475-489.
- «Juan de Beriain eta perpau konposatua». *Aingeru Irigarayri Omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta Literatura 4, 1985, 221-235.
- «Bizkaierazko testu berri bat (1778)», Iker-6, *Luis Villasanteri omenaldia*, Euskaltzaindia, 1992, 367-391.
- «Mendiburu gipuzkerara itzulia». Iker-10, *F. Krutwig-i omenaldia*, Euskaltzaindia, 1997, 279-298.

3. **Liburuen hitzaurreak**

- «Aurkezpena», *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*, J. L. Erdozia Mauleon, Nafarroako Gobernua – Euskaltzaindia, 2004, IX-XI.

4. Aldizkari espezializatueta argitaratutako lanak

4.1. *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*

- «Zegamako Doctrina Christiana (1741)», *ASJU* 18-2, 1984, 3-62.
- «Nafarroako Bertizaranan aurkitutako euskal testuak», *ASJU* 23-3, 1989, 701-755.
- «Amoresco eta doloresco Jesu Christoren pausoac», *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, *ASJU*, Gehigarriak 14, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991, 301-313.
- «Oierregiko testu berriak», *ASJU* 26-1, 1992, 181-204.
- «Gartzainen aurkitutako Kristau Ikasbidea», *ASJU* 26-3, 1992, 977-1002.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (IX)», *ASJU* 27-1, 1993, 299-320.
- «José Matías de Elizalde (1776-1856), Urdazubiko monastegiko azken abatearen predikuak», *ASJU* 27-2, 1993, 575-611.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (X)», *ASJU* 27-3, 1993, 903-947.
- «Juan Martin de Ibero (1729-1783), Izuko parrokuaren testuak (I)», *ASJU* 30-2, 1996, 645-702.
- «Juan Martin de Ibero (1729-1783), Izuko parrokuaren testuak (II)», *ASJU* 32-1, 1998, 231-309.

4.2. *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria / Boletín de Estudios del Bidasoa*

- «Irun eta Hendaian emandako bi euskal prediku (1831-1932)», *BIA/BEB* 7, 1990, 7-37, Irun.
- «Irun eta Oiartzungo bi testu (1832-1834)», *BIA/BEB* 8, 1991, 103-132, Irun.

4.3. *Boletín de la Real Sociedad Vasca de Amigos del País*

- «Voces vascas de Bacáicoa», *BRSVAP*, XXI, 3-4, 1965, 387-412.

4.4. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*

- «La parábola del hombre y el dragón», *CEEN* 27, 1977, 377-388.
- «Apeo de Baztán (1726-1727)», *CEEN* 44, 1984, 5-48.
- «La parábola del hombre y el dragón», *CEEN* 46, 1985, 103-108.
- «Los altos mojones de Belate-Zahar», *CEEN* 50, 1987, 365-375.

- «Lantz eta Ultzamako mugetan edestiaurreko oroitarri berriki aurkituak», *CEEN* 54, 1989, 503-519.
- «Lantz hiriko mendietan edestiaurreko oroitarri berriak», *CEEN* 56, 1990, 335-340.

4.5. *Egan*

- «Iraizoz-ko Polikarpo Aitaren hamalaukoak», *Egan* 1-6, 1981, 29-32.

4.6. *Euskera*

- «Goñibarko euskara XVIII. mendeko sermoietan», *Euskera* 26, 1981-1, 349-365.
- «Aita Polikarpo Iraizoz (1897-1980)», *Euskera* 26, 1981-1, 495-496.
- «Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena», *Euskera* 26, 1981-2, 633-649.
- «Garesko euskarari buruz zer bait», *Euskera* 27, 1982-2, 647-653.
- «Oieregi-ko Buenaventura Aita (1886-1956)», *Euskera* 32, 1987-1, 25-32.
- «Igorre-ko Julen Aita (1898-1988)», *Euskera* 33, 1988-2, 483-485.
- «Los Arcos-en euskal izena Urantzia ote?», *Euskera* 34, 1989-2, 723-724.
- «Fr. Juan Ajuriaren idazlanak (1800-1825)», *Euskera* 36, 1991-3, 923-992.
- «Fr. Migelek darabiltzan zenbait hitzez», *Euskera* 37, 1992-1, 545-555.
- «Errezuko Jurgi aita (1896-1992)», *Euskera* 37, 1992-1, 623-627.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (VIII)», *Euskera* 38, 1993-1, 59-124.
- «Aita Polikarpo Iraizozkoaren bizitza eta obrak», *Euskera* 42, 1997, 1+2, 61-75.

4.7. *Fontes Linguae Vasconum*

- «Producción literaria de Joaquín Lizarraga (1748-1835)», *FLV* 11, 1972, 265-281.
- «La Escuela de gramática de Joaquín Lizarraga, en Elcano», *FLV* 28, 1978, 127-138.
- «Manuscrito de pláticas en euskera guipuzcoano en los capuchinos de San Sebastián (I)», *FLV* 30, 1978, 525-546.
- «Manuscrito de pláticas en euskera guipuzcoano en los capuchinos de San Sebastián (II)», *FLV* 33, 1979, 91-119.
- «Joaquín Lizarraga en el Diccionario de Azkue», *FLV* 34, 1980, 107-141.

- «Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga (Valdizarbe)», *FLV* 35-36, 1980, 173-221.
- «Las vascongadas de Barbarin y Corres, Navarra y Álava», *FLV* 35-36, 1980, 371-382.
- «Primer sermón en vascuence navarro (1729)», *FLV* 38, 1981, 147-173.
- «Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi», *FLV* 39, 1982, 133-228.
- «Textos en vascuence navarro de Baztán, Nuin y Urdazubi», *FLV* 40, 1982, 387-401.
- «Escritos en vascuence del P. Esteban de Adoain (1808-1880)», *FLV* 46, 1985, 343-405.
- «Dos pláticas inéditas del P. Sebastián de Mendiburu», *FLV* 47, 1986, 151-165.
- «Textos en vascuence en el pueblo de Goñi», *FLV* 49, 1987, 117-140.
- «Dos pláticas en vascuence del siglo XVIII», *FLV* 50, 1987, 281-316.
- «Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)», *FLV* 53, 1989, 97-144.
- «Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII. mendean)», *FLV* 55, 1990, 73-121.
- «Goñerrin aurkitutako beste sei testu», *FLV* 57, 1991, 131-168.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (IV)», *FLV* 60, 1992, 297-333.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (V)», *FLV* 62, 1993, 137-153.
- «Hemezortzigarren mendeko bertsoak», *FLV* 64, 1993, 531-553.
- «Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz-ek izan zituen testuak», *FLV* 65, 1994, 161-183.
- «Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz-en euskal testuak», *FLV* 66, 1994, 349-369.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (VI)», *FLV* 67, 1994, 521-554.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (VII)», *FLV* 68, 1995, 173-190.
- «Juan Martin de Ibero (1729-1783), Izuko parroquia (1754-1783)», *FLV* 72, 1996, 235-267.
- «Ollon 1777. urtean emandako testuak», *FLV* 73, 1996, 465-482.
- «Bakaikuko euskal hitzak, esaerak etab.» *FLV* 100, 2005, 481-523.

4.8. **KOBIE**

- «Los cromlechs y túmulos de la estación megalítica de Atxuri», *KOBIE* (Serie Paleoantropología) 15, 1986, 229-232.

- «Bertitzarana eta Malerrekako trikuharriak», *KOBIE* (Serie Paleoantropología) 17, 1988, 169-179.
- «Edestiaurreko oroitarri berriak Nafarroan», *KOBIE* (Serie Paleoantropología) 18, 1989, 167-182.

4.9. Labayru

- «Aulestia: 1833. urteko testua», *Litterae Vasconicae* 7, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1999, 9-49.

4.10. Príncipe de Viana

- «Nuevos monumentos megalíticos en Baztán y zonas colindantes», *PV* 138-139, 1975, 5-46.
- «Nuevos monumentos megalíticos en Baztán y zonas colindantes», *PV* 140-141, 1975, 403-433.
- «Nuevos monumentos megalíticos en Baztán y zonas colindantes», *PV* 142-143, 1976, 21-54.
- «Nuevos monumentos megalíticos en Navarra», *PV* 144-145, 1976, 329-363.
- «Nuevos monumentos megalíticos en Navarra», *PV* 165, 1982, 7-29.

4.11. Trabajos de arqueología navarra

- «Nuevos monumentos megalíticos en Navarra (III)», *TAN* 7, 1988, 119-143.
- «Noticias megalíticas en los papeles de Tomás López Sellés», *TAN* 10, 1991-92, 167-183.
- «Edestiaurreko oroitarri berriak han eta hemen Nafarroan», *TAN* 11, 1993-94, 31-37.

5. Bestelako aldizkarietan argitaratutakoak

- «Edestiaurreko oroitarriak Baztanen», *Baztandarren Biltzarra*, Elizondo, 1988, 36-37.
- «Monumentos megalíticos en Baztán», *Pueblos de Navarra hoy*, Pamplona, 1988.
- «Euskaltzaindia», *La Verdad*, Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietako astekaria, 1993-X-16.

6. Egunkarietan argitaratutakoak

- «Patria Vasconum lingua», *Diario de Noticias*, 2001-III-27.
- «Lingua Navarrorum», *Diario de Noticias*, 2001-VII-29.
- «Nafarroa», *Diario de Navarra*, 2001-XI-26.
- «España, País Vasco, Navarra», *Diario de Noticias*, 2003-II-07.
- «Bakaiku 1951», *Diario de Noticias*, 2004-VI-08.
- «Bakaiku 1936», *Diario de Noticias*, 2004-VI-19.
- «Provincia hermana», *Diario de Noticias*, 2004-VII-01.

Donostia, 2006-I-27

Andres Iñigo